



## 63. EUSKAL SOZIOMETROA: EUSKO JAURLARITZA BERRIA (2017ko martxoa) Prensa oharra

### SARRERA

63. Euskal Soziometro honen gaia EAEko herritarrek Eusko Jaurlaritza berriari buruz dituzten jarrera eta iritziak eta hari buruz espero dutena jasotzen zentratu da. Landa lana 2017ko otsailaren 7a eta 13a bitartean egin zen.

### EGOERAREN BALORAZIOA

#### Euskadiren egoerari buruzko pertzepzio baikorra

Euskadiren egungo egoerari buruzko pertzepzioa oso positiboa da (6,0, 0tik 10erako eskalan) eta 2013an hasitako hoberako joerari eusten dio. Izan ere, 2007tik ez zen hain iritzi baikorrik neurtu.

Egoera pertsonalaren pertzepzioa 6,4 puntutan mantendu da. Gainera, urtebete barrurako espero dutenari buruz baikorrak dira herritarrek, azken urteotako joerari jarraituz.

EAEko arazo nagusiei dagokienez, herritarrek lan merkatuari lotutako arazoak aipatu dituzte berriz ere gainerakoak baino askoz gehiago (%79k hiru arazo nagusien artean aipatu dituzte). Bigarren lekuan arazo ekonomikoak aipatu dira gehien (%15), eta ondoren egoera politikoa (%12), etxebizitza eta etxe-gabetzeak (%9) eta zerbitzu publikoen funtzionamendua eta hedadura eta laguntzak (%9).

### EUSKO JAURLARITZA BERRIA

#### Balorazio ona eta Jaurlaritza berriarekiko konfiantza

Herritarren %29k jakin dute zuzen esaten EAJk eta PSEk osatzen dutela Eusko Jaurlaritza berria. Beste %25ek uste dute EAJk bakarrik gobernatzen duela eta beste %21ek beste aukera batzuk aipatu dituzte.

Herritarrek, 0tik 10erako eskalan, 5,2 puntutan kokatu dute Jaurlaritza honek eragiten dien konfiantza maila, aurreko Jaurlaritzari bere lehenengo hilabeteetan eman zioten konfiantza baino apur bat altuagoa (5,0).

EAEko herritarren oniritzia eman diote gobernu berriari esperientzian (6,2), eraginkortasunean (5,4) eta akordioetara iristeko gaitasunean (5,4), kasu honetan ere duela lau urte neurtutakoaren gainetik.

Herritarrek ezagutza eta gaitasuna aitortzen dizkiote Jaurlaritzari. Horrela, %57ren iritziak oso edo nahikoa ezagutzen ditu herritarren benetako beharrak; %38ren ustez, aldiz, gutxi edo batere ez ditu ezagutzen. Gainera, %59k uste dute gobernuak gaitasun handia edo nahikoa duela behar horiei erantzuteko; %34k diote gaitasun gutxi edo batere ez duela.

Oro har garrantzi handia ematen zaie Jaurlaritzak legegintzaldi honetarako definitutako ardatzei: ekonomia berrindartzea eta enplegua (9,0 0tik 10erako eskalan), gizarte politika eta zerbitzu publikoak (8,5), memoria eta bizikidetzak (7,5) eta autogobernuaren eguneraketa (6,9).

#### Egoera ekonomikoaren pertzepzioa nabarmen hobetu da

EAEko herritarrek oso iritzi ona dute Euskadiko egoera ekonomikoari buruz; %64k diote ona edo oso ona dela, 2013tik hona ikusitako hoberanzko joera sendotuz. Iaztik nabarmen handitu da iritzi hori (%47 2016an; %64 orain).

Gainera, urtebete barrurako espero dena ere hobetu egin da; %32k uste dute hemendik urtebetetera euskal ekonomia hobeto egongo dela, %54k berdin jarraituko duela eta soilik %9k okerrera egingo duela.

Espainiako ekonomia ez da hain ondo ikusten; %14k bakarrik diote ona edo oso ona dela eta %83k txarra edo oso txarra dela diote. Urtebete barrurako espero dena ere ez da hain positiboa, %19k diote hobetuko dela, %54k berdin jarraituko duela eta %21ek okerrera egingo duela.

Egoera ekonomiko pertsonalari dagokionez ere, 2013ko neurketarekiko hobekuntza nabari da. %65ek diote beren egoera ona edo oso ona dela (2013an %57k) eta %32k txarra edo oso txarra dela (2013an %43k). Herritarren %25ek uste dute datorren urtean beren egoera ekonomikoa hobea izango dela, %61ek berdina izango dela eta %9k okerragotu egingo dela.

Herritarren erdiek uste dute krisiak lan merkatuan izan duen eragina puntu gorenera iritsi dela; %39ren ustez okerrera iristeko dago.

**Enplegua, hezkuntza eta osasungintza lehenetasun**

Eusko Jaurlaritzaren zenbait jarduera-esparruri eman beharko litzazkiokeen baliabideei buruz galdetuta, herritarrek baliabide gehien hezkuntza eta enplegura bideratuko lituzkete (8,9 bientzat, 0tik 10erako eskalan) eta ondoren osasungintzara (8,8). Atzetik etorriko lirateke gizarte zerbitzuak eta laguntzak (8,3), etxebizitza (8,2) eta familia (8,2). Herritarrek neurri txikiagoan bideratuko lituzkete baliabideak kulturara (7,7), justiziara (7,6), ingurumenera (7,4) eta euskarara (7,2); baita azpiegituretara (6,9), Ertzaintza eta segurtasunera (6,8) eta immigrazioa (6,7) ere.

Administrazioek gehien babestu beharko lituzketen kolektiboek buruz galdetuta, euren kabuz bakarrik bizi diren pertsona nagusiak aipatu dituzte gehien herritarrek (%37k aipatu dituzte) eta ondoren langabetuak (%33), pertsona nagusi independenteak bere kargu dituzten familiak (%28), elbarrituak beren kargu dituzten familiak (%20), pentsiodunak (%17), gazteak (%17) eta adin txikiko seme-alabak beren kargu dituzten familiak (%16).

**Poztasuna demokraziaren funtzionamenduarekiko eta giza eskubideen errespetuarekiko**

Herritarrek 6,2 puntu eman dizkiote 0tik 10erako eskalan Euskadin ideia politiko desberdinak dituzten pertsonen arteko bizikidetzari eta 5,9 puntu kultura desberdinetako pertsonen arteko bizikidetzari.

Herritarren %59 ados daude "immigranteek asko ematen diote Euskadiri" esaldiarekin; adostasun maila hori Europar Batasuneko batezbestekoaren gainetik dago (%44).

Herritarren %42 guztiz ados daude "Euskadik errefuxiatuei lagundu beharko lieke" esaldiarekin, eta beste %38 nahikoa ados. Europan, Suediako biztanleen artean bakarrik dira gehiago esaldi horrekin guztiz ados daudenak.

EAEko herritarren %59 oso edo nahikoa pozik daude Euskadin demokraziak duen funtzionamenduarekin; 2002an bilduma hasi zenetik inoiz neurtu den mailarik altuena da hori. Espainian demokraziak duen funtzionamenduarekiko poztasuna ere handitu egin da, baina maila baxuagoetan mantentzen da.

Euskadin giza eskubideekiko dagoen errespetuarekin oso edo nahikoa pozik daude %65; 2005ean hasitako bilduman neurtutako poztasun mailarik altuena da hori ere.

**Gehiengoak uste du autogobernu handiagoa ona litzatekeela Euskadirentzat**

Herritarren %52k uste dute autogobernu handiagoa ona litzatekeela euskal ekonomiarentzat, %57k ona litzatekeela zerbitzu publikoen funtzionamendurako eta %48k ona litzatekeela bizikidetzarako.

Herritarren %16k nahiko lukete Euskadi/Espainia harremanei buruzko kontsulta bat egitea, beti ere Espainiako Gobernuak onartuko balu; beste %41ek edozein kasutan ere egitea nahiko lukete. %24k ez lukete nahiko eta %18k ez dute erantzun. 2014tik hona txikitu egin da kontsulta nahiko luketenen ehunekoa.

Independentziarekiko jarrerari dagokionez, 2000. urtetik neurtutako batez besteko neurrietara itzuli da: %31 kontra daude, %25 ados eta beste %30 egoeraren arabera ados ala kontra egongo lirateke.

**JARRERA ETA BALIO POLITIKOAK****Buruzagi politikoen balorazioa hobetu da**

EAJ da berriz ere begikotasun handiena eragiten duen alderdia (4,9, 0tik 10erako eskalan); ondoren datoz Elkarrekin Podemos (3,8), EHBildu (3,7), PSE-EE (3,3), eta azkenik PP (1,5).

Buruzagi politikoen balorazioa hobetu egin da: Urkullu lehendakaria 5,1etik 5,5era pasa da; Andoni Ortuzar 4,4tik 4,9ra; Idoia Mendia 3,7tik 4,2ra; Arnaldo Otegi 3,7tik 3,9ra eta Alfonso Alonso 1,9tik 2,2ra. Nagua Alba 3,6an mantendu da.

Ikerketa honen **fitxa teknikoa** zabaldu den txostenean kontsulta daiteke. Lagina 18 urtez gorako herritarrei zuzendua, EAE osorako 2.268 lagunek osatua da. Elkarrizketak aurrez-aurre egin dira. Lagin honi dagokion lagin errorearen estimazioa  $\pm 2,1$ eko da EAE osorako, %95,5eko konfiantza mailarako,  $p=q=0,5$  izanik. Informazio bilketa 2017ko otsailaren 7tik 13ra bitartean egin zen.

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri dago:

[http://www.euskadi.eus/ikerketa\\_sociologikoak](http://www.euskadi.eus/ikerketa_sociologikoak)

Vitoria-Gasteiz, 2017ko martxoaren 22an